

Agurka naukazu gaur, ene baso kirmen;  
itzala, zura, poza didazu ematen...  
Euria ari denean adarrak dizditzen,  
beroak kiskaltzean ezkoa gordetzen.

Mendi soil-gorrikoa latz idor izanik,  
lur ori goxoago dala uste duta nik.  
Leona uxarazteko ez dugu zu lakorik,  
nik maite zaitut maite, biotz biotzetik.

Barrenean lci dala zugar ezta izotzik,  
negua izanda ere, ez dut emen otzik;  
uda dala, ordea, aizea goxorik,  
ene lan-izerdiari atsedan emanik.

Ondo dasa esakunak: «Baso ta ibaia, auzo;  
au ez duen etxea egiz lander (6), gaizto».  
Bego, beraz, betikoz jori ene baso,  
uda-miñeko sasoiz denontzat abaro.

## GARI-ILLA

*Lenago gertatua pozgarri izan oi zaigu. Ogei bat urte aurretik gana erein oi genuen Gipuzkoa-n eta Bizkaia-n ere; gaur ez dugu ereiten. Baiña euskaldun baserritarrak gariari buruz izan zituen arazoak, bai erein eta ebakitzean, bai eta jota garbitzean, ez ditugu aiztutzekoak. Lan neketsua, baiña atsegiña noski,*

**Doiñu:** «Argizagi ederra,..».

---

(6) Beartsu.

Bijoa zarra igeska  
eta betor berri,  
auxe duzu munduan  
biziaren zori.

Lenago garia guk  
ereiten soroan,  
arez lurra ederki  
gertatu ondoan.

Maitagarri nuen nik  
soroan garia,  
gaiñ-gaiñez zuelarik  
bero eguzkia.

Dizdiza zuen eder  
ertzaren ertzean,  
txindiaren goxoa  
emanik barnean.

Egoaren indarrak  
zerabilzkin urdin,  
sorgiñaren gorputza  
bezelatsu arin.

Iparrak zun iku leun  
oro kulunkatzen,  
arnasa maitagarriz  
dena bizi-azten.

Eztugu gaur garirik  
kulunkaz soroan,  
ezta ere txindirik  
imurtziz golkoan.

Gaur lenaren zimikoz  
sari nabilkizu,  
gariaren oroiak  
udan nau zauritu.